

HERRIAREN SUSTRAIAK ARAKATZEN

Zaharraren zaharrez eta 'nahikoa da' esanez, urtea hiltzeaz zegoen guztian, urtero Gabonzaharrez, oroitzapen xumeen artean, lekutxo bat egiten genion J. M. Barandiarani.

1991.ak azkena eman baino hamar egun lehenago eten zen haren bizi-haria. Komunikabide guztiak ahalegindu ziren ahal bezain egoki harekikoa betetzen; haren aipamen eta gorazarretan oparo aritu ziren. Gera bedi guztia euskaldunon mirespen eta eskerronaren adierazgarri; haren garaikide izatea egokitu ez zaien ondorengo belaunaldiei ere hel bekie gorputz tikiko euskaldun miresgarri honen berri.

KARMEL aldizkariak euskarazko beste komunikabide guztiekin bat egin nahi luke bere aipamentxoan egitean. Ez chugu hartaz gauza interesgarri eta berezirik esango. Bakarreko gogoeta xumeak soilik, hurrenez hurren ahalik ondoen jarriak, eta aldizkariaren orri banaka batzutan, zuri, irakurle maite horri, igorriak.

Nik neuk ez nuen harekin harreman pertsonalik izan. 1991.eko abenduaren 22an, hala ere, Ataungo San Gregorio auzora hurbildu nintzen hileta-elizkizunean esku hartu nahirik. Kamino ertzean urrun gelditu ginen eta handixik jarraitu elizkizuna. Han geundela, eguzkiak hodeietz arrosa kolorekotik agur egin zigun eta laster




J. Migelen gurasoak

entzun ziren txaloak Jose Migeli ere agur egiten, haren gorpu ilara jaso eta andaburua hilerrirantz abiatu zenean. Etxerakoan pentsakor nentorren apaiz txiki hark uzten zuen hutsune nabarmenaren kezka neure baitan nuela. Eta zertxobait, KARME aldizkarian edo, hartaz idatziko nuela agindu nion neure buruari.

Arbasoen altxorra

1913.ean Leipzig-a joan zen Wilhelm Wundt irakasle marxistak herrien psikologiaz eman behar zuen ikastaro batetara. Wundt irakaslea izan zen Jose Migeli geroko zientzilari-bizitzarako



norabide ziurra markatu ziona. Norbere bizitza, esperientzia hartu behar dela beti oinarritzat esan ohi zuen irakasle hark; bizi ez dena zail dela interpretatzen. Eritzi hori barru-barruan sartu zitzaion Jose Migeli eta harez gero, ikerketan nondik nora edo zertara jo galdezka hurbiltzen zitzaizkion guztiei, urrezko aholku hori eman ohi zien, baita berak zehatz-mehatz bete ere.

Lehen-lehenik hurbilenekoa biltzeari ekin zion. Ataungoa eta etxetik bertatik hasita. Hainbat ipuin, sineskeria eta esakune jaso zituen bere ama zenarengandik; kontu hauen artean bat Ataungo Jentilbaratzari buruzkoa omen zen. Leku hartan jentilak zeudela ehortzirik eta harantz jo zuen indusketak egitera, baina ez omen zuen giza hezurrik aurkitu, txerri-hezur batzu baizik. Aralar mendia izan zen hark lehen miaketak egin zituen tokietariko bat; mendi honek, antzinako elezahar eta istorioetan mendi sakratuaren sona bazuen, geroago sona hori ongi oinarriturik geldituko zen Ataungo maisuaren ikerlanei esker. Arbasoen lorratz garrantzitsuak aurkitu zituen bertan. Behin hara heldu eta bideko nekea arintzearren, harri baten gainean eseri eta lurra pixka bat harroturik zen

satortoki baten ondoan giza hagin bat aurkitu zuen eta, hariak harila dakarrenez, aztertzen hasi eta ustekabean Gipuzkoako lehen trikuharria aurkitu zuen. Gero, Gipuzkoako Foru Aldundiako 'Euskalerrriaren Alde' aldizkarian argitaratu zuen bi artikulutan bere aurkikuntza. Idazlan horien bitartez jarri zen Telesforo Aranzadi eta Enrike Egurenekin harremanetan, gerora hain ospetsua izango zen hirukotea sortuz. Honetaz, 1989.eko apirilaren 23an ARGIA astekariari egindako adierazpen batzuren artean, honela zioen berak:

'Gu ibiltzen ginen hiru, eta esaten ziguten *los tres tristes trogloditas*. Los tres egia da; tristes ez, kontentu ibiltzen ginen, eta trogloditas bai, kobetan ibiltzen ginen. Gauza horiek asmatu zituenak ere...! Beno, badakizu, mundua hala da eta'.

Hiru hauek Aralarko trikuharriak aztertzen hasi eta geroztik Hego Euskal Herriko hainbeste koba, trikuharri eta

aztarnategi aurkitu eta aztertu zituzten. Hogei urtez iraun zuen hirukote honek elkarlanean. Aranzadi aitortu izan du beti Jose Migelek bere maisutzat. Arestian aipatu dugu bere ikerlari-bizitzan Wundt irakaslearen aburua banean josirik gelditu zitzaiola, bizi izan dena, esperientzia hartu behar dela ikerketa-lanaren giltzarri; hori gabeko lanak oinarririk gabe eta hutsal geldi daitezkeela. Aranzadirengandik ere antzeko aburua jaso zuen: 'Datuak teoriak



Handwritten text, possibly a name or number, located in the top left corner of the page.



Faint, illegible markings or text located in the bottom right corner of the page.


baino garrantzitsuagoak dira'. Oinatin 1919.ean egin zen Eusko Ikaskuntzaren lehen biltzarrean hirurok izan ziren, baita Santimamiñeko kobak aztertzen ere. Enrike Eguren gasteiztarra 1944.eko udan hil zen; Telesforo Aranzadi eta Jose Migel Barandiaranek elkarrekin jarraitu zuten 1936.eko gerra sortu arte, bai Euskal Herriko bazterrak arakatzen eta bai Europan zehar hitzaldiak ematen.

Haren idazlan guztiak 22 liburuki handitan bildurik daude, baina bi liburu dira haren teoria ezagutzeko azpimarragarrienak: «El hombre primitivo vasco» eta «El mundo en la mente popular vasca». Euskaldunon jatorriaz bere teoria gauzatzen du 1934.ean argitaratu zen lehen liburu horretan: gaureguneko euskal gizakiak eta paleolitikokoak kultur elementu berdintsu ugari dituztela egiaztatzen du eta horregatik euskal kulturak milaka urtetako sustraiak dituela.

1939.ean, Itziarko Urriaga haitzuloan Aranzadirekin batera lanean ari zela harrapatu zuen gerrak eta alde egin behar izan zuen Iparraldera, Sara herrian kokatuz. Orduan Aranzadi eta biak nor bere bidetara ekin zioten eta ez zuten gehiago elkar ikusi. Ustez laburra izango zelakoan egotaldi hura eta hamazazpi urtekoa izan, «ona ez bait nintzen», esan ohi zuen berak... «simpatizante de ideas judeo-masónicas y rojo separatista» txartela jarri omen zioten Madrilgo agintariek eta horrelako izen onarekin... nekez itzul zitekeen gauzak pixka bat baretu arte. Lehenengoetan herriminak eraginda, Miarrizetik Ernio mendira begira egoten omen zen, handik Ataungo jaiotetxea ikusten zela bere kantuan pentsatuz. 1953.ean itzuli zen, Salamancako unibertsitatean hitzaldiak emateko atxakiaz. Berehala ekin zion berriro, gerra zela eta etenda bertan behera utzi behar izan zuen lanari: Itziarko Urriaga haitzuloa aztertzeari.

Zientzilari zorrotza

Aipatu berri dugu harpeetako hirukotea. Oso gazterik ezagutu zuen Manuel Lekuona ere eta biak adiskide min izatera heldu



Marizulo-ko Leizearen sarreran (Urnieta) oharrak idazten




Atxeta-n (Forua, 1960)

nak, elezaharrak, sineskeriak, pipitakiak, esaera zaharrak, koplak, herri-kantak eta abar bildu zituen. Barandiaran jaunak bezala, honek ere, bere amaren ahotik jaso zituen gauza asko. EUSKALERRIAREN YAKINTZA lan bikainean dugu guzti hori eta amaren aipamena argi eta garbi dator bai obra honetan eta bai hiztegiaren sarreran.

ziren; gerora, Gasteizko seminarioan elkarrekin ihardun zuten hango irakasle-lanetan. Askok izpiritu bizki edo oso antzekotzat jo dituzte biak. Beude eritzi horiek horretan. Niri, hala ere, Azkue datorkit oroimenera. Lekeitiar jakintsuak arlo oso zabala hartzen zuen: hizkuntzalari, musikagile, idazle, antropologo, folklorista... zerez? Eta guztietan gailendu zen, hizkuntzari dagozkion gaietan lortu zuen ospeak gainerakoak erdi ilunpetan utzi bazituen ere. Arbasoen altxorra bilzteari biek ekin zioten gogotsu. Azkuek ere ipui-

Hala ere askok azpimarratu dute, eta hala dirudi, Azkue jaunak ez zigula hor iturritik harako ur gardenik eskaini, ukitu txiki batzu eginik eta bere erara jarririk baizik. Hau da, herrian bildurikoa bere ikuspegi eta aburuetan iragazirik ematen digula. Dirudienez, bai biltzen zituen ipuin, sineskeria eta abarren hitz eta esaldiei dagokienez eta bai herri-kanten doinuei dagokienez, bietan maisu handia izanik, zuzendu, ukitu eta osatu beharrekoak aurkitu zituen. Ez da harritzekoa, orduan garbizalekeriaren bahe estua erabiltzen bait zen euskal letretan; bestalde, kanta gordin samar batzuri zentsura jarri ziela ere, entzun eta irakurri izan dugu. Azkue jaunaren esku-sartze hori norainokoa izan den ez dakigu, inork ez bait dio, guk dakigula, kritika serio eta zorrotzik egin; lexikografian, ordea, L. Mitxelenaren FUENTES DEL DICCIONARIO DE AZKUE liburu ederra dugu.



«Perurene-Zarra»

Barandiaran jaunaren testuetan, ordea, ez dago inolako zalantzarik. 'Garia kutxatik' dio esaera zaharrak; herri-jakintza herriarengandik. Horrela jokatu zuen beti Jose Migelek. Zientzilari izateak eta Europako zientzilariekin harreman estuak izateak zerikusi handia izan zezaketen haren jokaeran. Herri-ohiturak, izaera, kultura... begirune handiz hartzen zituen; harentzat hori sakratua zen. Horregatik, horretan esku-sartzerik egitea makurkeriatzat zuen. Koba eta aztarnategietan ere kontu handiz aritzen zen. Urrats ziurak emateko gai bere burua ikusten ez zuenean, nahiago izaten zuen medio hobeak, aurrerapen handiagoak zirenerako utzi. Horrelaxe jokatu zuen Santimamiñen, Aranzadi eta Egurenekin batera; ahal zuten guztia ikertu zuten, baina gainerakoan, badaezpadako pausurik eman gabe, ondorengo ikerlarietzat utzi zuten...

Jean Haritschelhar, euskaltzainburuak honela diosku: '(...) inkestak egin dituelarik, soziologia, etnologia, mitologia eta horien aldetik, hor bildu ditu ez dakit zenbat ipuin eta abar, eta denak bere euskalkian, eta hor oso hizkuntzalari ona ere izana dela uste dut; gauzak ziren bezala idatzi zituen, eta hori ere azpimarratu behar da. Badugu hor altxor bat oso ona, deus aldatu gabe bildu dituen lan guztiak' (ARGIA, 1992-I-12).

Euskal muinaren bila

Euskal izaeraren esentziaren bila aritu zela esan genezake, euskal arimaren bila. Hiru galdera nagusi zerabiltzan gogoan etengabe, eta jendaurreko solasaldietan ere ia beti aipatzen zituen:

Nor naiz, nondik nator, nora noa. Ahalegin horretan murgildurik aritu zen. Helburu zaila, baina gogoa betekoa; pertsonaren bizitzan, haren izaeraren misterioan argi bat pizteko lehian iraun zuen azken arnasa eman arte. Hori zen haren lana, haren bizia. Baina ez zuen aski bere ikerlanetan euskal muinaren bila aritzeaz; bere nortasunean, bere izaeran ere euskaldunaren esentzia edo adierazgaitz den oreka, hitzez ia esanezina den



zera, bete-betean bereganatu zuela esan zitekeen. Jatortasuna zerion alde guztietatik. Euskalduna, gizon erlijioso, herri-maitalea.

Euskara maite-maite zuen; euskararen alde herri-ekintzetan ere ahal zuen bitartean gogotsu esku hartu zuen, «Korrika»-n, esate baterako.

1989.eko apirilean ARGIA astekariak argitaratu zuen elkarrizketan garbi azaltzen zuen euskaltzaletasun hori, baita etorkizunaren kezka ere. Euskal nortasuna zertan oinarritzen den galdetzean, honela erantzun zuen:


‘Lehenengo hizkuntza: horrek adierazten du badela herri bat bere nortasuna duena. Hizkuntzarekin batera joaten da izakera, kultura. (...) Euskara, niretzat behintzat oso garrantzitsua da. Gure aurrekoena, eta haiengandik iritsi zaiguna, euskara’.

Euskararen etorkizunaz galdetzean, honela zioen:

‘Nik ez dut gaizki ikusten. Baina oraingo mundua ez da orain dela 50 urtekoa bezalakoa, ez da berdina. Orduan bizi izateko ez

zen gaztelera jakin beharrik, ez zuen faltarik egiten. Orain gaztelera ikasten dute denek, eta horrek ematen dit beldur ikaragarria. Herriak nahi du euskara, euskarak irautea nahi du, baina denek gaztelera ikasi behar; aai! bi hizkuntzetatik zein nagusituko ote da hor?

Oso erlijiosoa zen. Inolako lotsarik gabe agertu ohi zuen hori eta bere apaiz izatea ere bete-betean eta poz-pozik bizi izan zuen. Zen bezalakoa edonoren aurrean agertzeko ez zuen engararik. Erlijioa eta eliz-kutsua iraganaren seinaleztat eta atzerakoikeriaren esparrutzat zituen euskal gizarte berria izan zuen inguruan; marxista-aireko gizarte garratza ere bai hirurogeitamarreko hamarkada inguruan, baina hura ez zegoen moda eta haizearen norabideari



begira. Bere erlijioan eta apaizgoan tinko iraun zuen; hala ere, kontrako joera guztiak gorabehera, jendeak bene-benetan maite izan zuen, pentsaera eta adin guztietako jendeak, bereziki gazteek.

Dena dela, apaizteriaren aurkako joerak ez dira oraingoak soilik. 1921. urtean Eusko Folklore izeneko elkarte sortu zuen eta bere lanak elkarte honen urtekarian argitaratzen hasi zen. Norbaitzuk elkarte hau gogorki kritikatzeko omen zuten, sotanadun bat zuzendari zuen elkarte batek ezin zuela gauza onik egin eta antzekoak esanez...

Ikertzaile eta ikertzaileen maisu

Gauza ezaguna da Barandiaran jaunak etnologia eta antropologia arloan lan oso garrantzitsua burutu duela. Behar bada, mende honetan egin izan denik eta sakonena, iraunkorrena; baina ez berak lan egin soilik, eskola ere sortu du; han eta hemen taldeak antolatu ditu eta bera ez denerako guztia prest-prest utzi du. Hala dioskue haren ikasleek. Fermin Leizaolak Euskaldunon Egunkarian dioena aipatuko dut hitzez-hitz:

'Bide asko zabaldu zituen, ikerketa linea berri ugari hasi zituen. (...) Eta asko erakutsi izan digu beti bere ikasle izan garenoi, hala etnologo nola antropologoei. (...) Nolanahi ere, nik uste dut Barandiaranek, Enrike Eguren eta Telesforo Aranzadirekin batera, 1915ean hasitako lanek jarraipena izango dutela, bai etnologian, bai antropologian eta bai aurrehistoriaren ikerkuntzan. Jarraitzaile asko izan du eta jende asko gara, gaur bertan ere, berak erakutsitako bidean lanean ari garenak, Bizkaian, Araban, Nafarroan, Iparraldean, Gipuzkoan, Euskal Herri osoan zehar'.

Eritzi bat eta azken gauzatxoak

1991.eko abenduaren 22ko Euskaldunon Egunkarian datozen eritzi guztien artean, Imanol Muruarena hautatu dut, polita eta Jose Migeli bete-betean dagokiona delako. Honela dio:

'(...) jakintsua zela jakinda -berak oso ondo zekien jakintsua zela-, benetako jakintsuaren apaltasuna zuen. Gainera, gauza txikiak baloratzen ondo zekien gizona zen: edonoren bisita ohore bezala hartzen zuen, ohorea bisitariarena zenean. Ez da ahaztu behar, bestalde, apaiza zela, nire eritziz apaiz santua, eta kristau izaera gauza guztien gainetik jartzen zuena'.

KARMEL aldizkarirako idazten ari naizenez gero, ezin aipatu gabe utzi orain dela urte asko, 1921.etik 1926.era bitartean, hark Larrako Karmeldarren ikastetxearekin izan zuen harremana. Garai horretan ikastetxe hori onen-onenean zegoen. Gerora euskal idazle ospetsu izango ziren batzu ikasle ziren; haien artean, Santi Onaindia eta Lino Akesolo zena. Giza zientziak edo 'humanida-



des' deritzenak irakasten ziren. Euskal eskolak ere ordurako ongi eraturik omen zeuden gogoberoz jartzen zituen irakasleak hango gazteak; baita hainbat sari lortu ere.

Horregatik edo, behin Jose Migel Barandiaran bidali zuten Euskal Esnalea-koek Larrako ikastetxera, euskara irakasteko ze metodo erabiltzen zen jakiteko.

Azkenez, bi pintzeladatan adierazteko, gizon jakintsu, agurgarri eta miresgarria dugu Jose Migel Barandiaran; Euskal Herriaren ongile aparta; katedrako irakasle baino gehiago, ikerlaneko lagun, gidari eta zuzeneko maisu; herriarengandik gaiak, informazioa jaso eta, zientziaren zehaztasunez oreturik, jasotako guztia berriro herriari berari itzuli ziona; historiaurrearen ilunpeetan argi egin eta iragan urrunaren tolestura misteriotsuetan zientziaren ukitua jarri zuena.

Luis Baratzarra Txertudi